

Herkules zutabea: humanismoko arte mintzoduna Euskal Herrian

Gidor Bilbao Telletxea
EHU

Juantxo Agirre-Mauleon
Aranzadi Zientzia Elkarte

Tolosako Aranburu Jauregian den zutabearen irakurketa ikonografikoa eskaintzen da artikulu honetan, XVI. mendeko arte mintzodunaren lekukotasun gisa aurkeztuz. Herkulesen hiru lan identifikatzen dira harroinean eta sakratu/profanoaren bikoiztasunean ulertzen dira, Veronikaren zapiak agertzen duen Kristo garailearekin batera. Zutabea Sebastian Lartaun oiartzundarrarekin erlazionatzen da hipotesi gisa, honen bizitza eta zutabearen mezu didaktikoa lotuz. Artikuluaren barruan Herkulesen elezaharraren greziar bertsio bat (Apolodoro, *Biblioteca*) ere eskaintzen da euskarara itzulita.

In this paper the iconographic reading of the column located in the Aranburu palace of Tolosa is given, presenting it as an evidence of the talking art of the XVIth century. Three works of Hercules are identified in the column and they are understood in the sacred/profane duplicity, together with the victorious Christ that is showed in the handkerchief of Veronica. As hypothesis, the column is connected with Sebastian Lartaun, who is from Oiartzun, relating his life to the didactic message of the column. Inside the paper, A Greek version of the legend of Hercules (Apolodoro, *Library*) translated into Basque is also given.

1. Herkules Tolosan

Tolosako Aranburu Jauregian den zutabe baten inguruko argibideak eskainiaz, honen inguruko arreta biztu nahi genuke, Bepizkundeko arteak eta ikonografiak Gipuzkoan eta Euskal Herrian izan duten harrera agerian jartzeko eta bereziki mitologia grekolatindarraren aztarnen eta erabileraren berri emateko¹.

Guk dakigula ez da orain arte argitara eman zutabe honen interpretazio ikonografikorik, eta hutsune hori bete nahi genuke, Euskal Herriko beste toki batzuetako lekukotasunekin lotuaz eta Bepizkundeko mendebaldean aski hedatu zen jokamolde baten testuinguruan kokatuaz.

Aztergai dugun zutabea Tolosako Aranburu Jauregian dago gaur egun, beheko solairuan, ate nagusitik sartu eta eskuinera. Jauregiaren eraberritze lanak berriki burutu arte, hango lorategian egon zen, erdibotata. Jakin ahal izan dugunez, mende honetako 20ko hamarkadan eraman zuen Oiartzunetik Tolosara Ramón de Zavala y Monzónnek. Ordura arte Oiartzuneko Zuaznabartarren Dorretxean egona zen zutabea, lastategiaren hegal bati eutsiaz edo². Oiartzuneko Zuaznabartarren dorretxea da beraz, guk dakigunaren arabera, zutabearen jatorrizko testuingurua³.

Zutabe libre gisa ezagutzen dugu egun eta badirudi jatorriz ere hala zela. Argi bereizten dira hiru parte, neurri beretsuko hiru harri zatiren ordainak: beheko aldea (harroina) eta goikoa (kapitela) irudiz apainduta daude, eta erdikoa berriz, fustea, apaindu gabe. Fustea zilindro formakoa da eta harroinaren barrena eta kapitela-burua, ordea, lau angelukoak. Harroinaren parte zilindrikoan gizakien eta abereen irudiak ikusten dira, hiru multzo edo agerralditan. Hauetako baten gainean ongi bereizten ez dugun irudia dago, agi danean arranoaren hegoak edo. Goienean armari handi batek hartzen du leku nagusia; aldamenean, txikiago, Veronikaren zapia dago.

Harroineko hiru eszenen arteko lotura nabarmena da: Herkules da hiruetan pertsonaia nagusia. Harria zenbait zatitan hondatuta egon arren, garbi bereizten da lehoiaren burua eta larrua burutik behera jantzita dituen gizakia: Herkules da, ez dago zalantzarik, hauek baitira hain zuzen bere ezaugarri nagusiak, borrarekin batera, garai guztietako ikonografian. Zalantza izpirik balitz hura ere deusezteko, borra eskuan hartuta agertzen da bigarren agerraldian.

2. Herkules Tebasen

Greziar heroi handiena da Herakles, erromatarren artean Herkules izena hartu zuena. Zeus eta Alkmenaren semea da. Umetarik izan zen luzea, indartsua eta buruernaia. Egitandi ugari burutu zuen hala bakarrik nola taldean (Troia

1. EHU-UPV eta Eusko Jaurlaritzaren ikerketa proiektuaren barruan egin ahal izan da lan hau.

2. Ramón de Zavala Salazar eta Florencia de Eznarrizaga y Zuaznabarren arteko ezkontza izan zen Zuaznabartarren oinordekotza Zavalatarrenera igarotzeko bidea. Azken hau 1897an hil zen, eta bien iloba zen oinordekotza hartu zuen Ramón de Zavala y Monzón.

3. Tamalez gutxi dakigu etxe honi buruz, bigarren karlistaldian erre baitzen; orain Ugaldetxo Industriagunean lantegi artean ittota geratu den baserri baten arkuak da etxe hartatik geratzen den lekuko bakarra.

setiatzean adibidez). Lehoi larrua bizkarretik behera eta burubabes gisa lehoi burua dituela irudikatzen da, eskuan berak eginiko mailutzar edo borra hartuta. Megararekin ezkondu ondoren, zoratu egin zuen Herak eta bere semeak eta lobak hil zituen. Tebasetik erbesteratuta, Delfosera iritsi zen eta han iragarri zioten Euristeo erregearentzat hamar lan eginez gero hilezkor bihurtuko zela. Erregeak lan hauetako bi onartu ez zituenaz, azkenean hamabi lan burutu zituen, bere indarrari eta buruargitasunari esker.

Lehenengo lanean Nemeako lehoia hil eta larrutu zuen. Bigarreanean Lerna eskualdeko Hidra izugarria hil zuen. Hirugarren lana basurde bat harrapatzea izan zen. Urrezko adarrak eta brontzezko apatxak zituen oreina harrapatu behar izan zuen laugarren lanean. Bosgarren lanean Estinfalo lakuko hegazti beldurgarriak uxatu eta akabatu behar izan zituen. Seigarrenean Augias erregearen ukui luak eta soroetako simaur piloak garbitu zituen. Zazpigarren lana Kretako zezena bizirik harrapatzea zen. Zortzigarrena, Diomedes erregearen behor gizajaleak mantsotu eta Euristeori eramatea. Bederatzigarren lanean Hipolita Amazonen erreginarean gerrikoa lortu behar izan zuen. Gerion hiru gorputzeko mustro izugarriaren idi-taldea bereganatu zuen hamargarren lanean. Hamaikagarrenean urrezko sagarrak kendu zizkien Hesperide ninfei eta Ledo dragoiari. Azken lanean Zerbero Zakurra hilen erreinutik ateratzeko eskatu zioten.

Beste egitandi batzuk ere burutu zituen baina azkenean Deianira emazte jeloskorak hil zuen, tunika pozoitua jantziaraziz erreta.

Gero ikusiko dugunaren arabera Herakles edo Herkulesen irudia garai guztietan erabili eta interpretatu denez, komeni da lehen-lehenik heroi honen elezaharra greziarrek eurek kontatzen zuten moduan ezagutzea. Horretarako bertsio osoenetako bat hautatu dugu, Atenaseko Apolodorori atxiki zaion *Biblioteca* liburukoa. Zalantzak daude liburuaren egiletasunaz, baina helenista batena da; K.o. I. edo II. mendean grekoz idatzia batzuen arabera, K.a. I. mendeko Apolodorok idatzia beste batzuen aburuz. Beste inoren izenik zehazterik ez dagoenez, "Apolodororen *Biblioteca*" esaten zaio gaur ere. Liburu honetako II.IV.8 - II.VI.1 eta II.VII.5 - II.VII.7 atalak oso-osorik euskaratuta emango ditugu hemen⁴.

2.1. Apolodoro, *Biblioteca*, II.IV.8 - VI.1; VII.5 - VII.7

«II.IV.8. Baina Anfitrion Tebasera itzuli baino lehen, Zeus agertu zen gau batean eta gau bakarra hirukoiztuz, Anfitrionen antza hartuta, Alkmenarekin elkartu zen ohean eta teleboekin gertaturikoa kontatu zion. Anfitrion iritsi eta emazteak ez ziola ongi etorri egiten ikusi zuenean zergatia galdetu zion eta aurreko gauean ere etorri zela eta berarekin lo egin zuela erantzun zionez, Zeusekin elkarganatua zela jakin zuen Tiresiasen bidez. Alkmenak bi ume erditu zituen: bat Zeusena, Herakles, gau bat zaharragoa, eta bigarrena Anfitrionena, Ifikles. Mutikoak zortzi hilabete zituela Herak, haurra hil nahian, bi suge izugarri bidali zituen honen ohatzera, baina Alkmena laguntza eske Anfitrioni deika ari zen bitartean, Herakles altxatu egin zen eta bere eskuekin itoarazita akabatu zituen.

4. Itzulpena Gidor Bilbaorena da. J.G. Frazere-ren grekozko testua eta hala honen ingelesezko itzulpena nola M. Rodríguez de Sepúlvedaren gaztelaniazkoa erabili ditugu.

Ferezidesen arabera, ordea, Anfitrion izan zen sugeak ohatzean jarri zituena ume bietarik zein zen berea jakin nahian eta Ifiklesek ihes egiten zuen bitartean Heraklesek aurre egin zenez Ifikles zela berak sorturikoa jakin zuen.

9. Anfitrionek gurdia gidatzen irakatsi zion Heraklesi, Autolikok borrokan egi-ten, Euritok geziak jaurtitzen, Kastorrek armekin borrokatzen eta Linok zitararekin kantatzen. Hau Orfeoren anaia zen, Tebasera iritsi eta tebastar egina, eta Heraklesen zitararen kolpez hil zen, hark astindua eman ziolako suminduta hil egin baitzuen Heraklesek. Eta zenbaitek bere aurkako hilketa-auzia eragin zutenean Radamantisen lege bat aipatu zuen Heraklesek, zuzengabeko erasotzaile baten aurrean defenditzen dena errugabea dela zioena, eta horrenbestez absolbitua izan zen. Baina halako besteren bat egin zezakeen beldurrez, ganadu-etxaldera bidali zuen Anfitrionek eta han hazi zen inork baino gorpuzkera eta indar handiagoa-ekin. Hura ikustean agerian zen Zeusen semea zela bere gorputzak lau ukondo baitzituen luzeran eta bere begietatik sugarren distirak dirdaitzen baitzuen. Eta ez zuen huts ematen ez geziak ez xabalina jaurtitzean.

Hemezortzi urterekin idi-talde artean zela Ziteroneko lehoia hil zuen, honek Ziteronetik etorri eta Anfitrion eta Tespioren idiak hiltzen baitzituen. 10. Tespio hau tespiarren errege zen eta bere aurrera azaldu zen Herakles hark lehoia harrapatu nahi izan zuenean. Tespiok berrogeita hamar egunetan eman zion ostatu eta gauero, ehizera abiatzen zenean, bere alabetako batekin elkarganarazten zuen (berrogeita hamar alaba ziren Megamede, Arneoren alabarengandik jaioak), denak Heraklesen umeez erditzea nahi baitzuen. Honek, berarekin elkarganazten zena beti bat zela pentsatuta, denekin izan zituen harremanak. Lehoia garaitu zue- nean, honen larrua jantzi zuen soinean eta ahutzak hartu zituen burubabes gisa.

11. Ehizalditik itzulian zetorrela, Erginok tebastarrei zerga kobratzeko bidali- tako mandatariek aurkitu zuten. Ondoko honengatik ordaintzen zioten zerga Ergi- nori: Perieres izeneko Menezeoren gurdizain batek Onkeston, Poseidonen barruti sakratuaren barruan, harri bat jaurti eta Klimeno zauritu zuen, miniarren erregea; Orkomenora eraman zuten hil hurren eta, azken arnasan, bere heriotzea mendekatzeko eskatu zion Ergino semeari. Orduan Ergino Tebasen aurka abiatu zen eta ez-gutxi hil ondoren zinpean hitz hartu zuen tebastarrekin hauek hogeit urtetan urtero ehun behi bidaliko zizkiotela. Heraklesek Tebasera zerga honen bila zihoazen mandataria aurkitu zituenean, laidoztatu egin zituen, belarriak, sudurrak eta eskuak moztu eta sokekin idunetik lotuta zerga hau eramateko Erginori eta miniarrei esan baitzien. Gertakizun hauekin gaitzituta, Tebasen aurka abiatu zen Ergino. Baina Heraklesek Ateneak emandako armak eta borrokaldiaren buruzagi- tza hartuta, Ergino hil zuen, miniarrei ihes eragin zien eta tebastarrei halako biko zerga ordaintzera behartu zituen. Baina gudaldian Anfitrion erori zen, adorez borrokatzen ziharduen bitartean. Heraklesek Kreonen alaba nagusia, Megara, hartu zuen sari gisa eta hiru seme izan zituen honekin: Terimako, Kreontiades eta Deikoon. Alaba gaztea Ifiklesi eman zion Kreonek; Ifiklesek bazuen ordurako seme bat, lolao, Automedusarena, Alkatoren alabarena. Anfitrionen heriotzearen ondoren, Radamantis, Zeusen semea, ezkondu zen Alkmenarekin, eta erbeste- ratuta bizi izan zen Beoziako Okaleasen.

Euritorekin arku erabiltzen ikasi ondoren, Heraklesi ezpata eman zion Hermesek, arku eta geziak Apolok, urrezko armadura Hefestok eta tunika Ateneak; borra berak moztu zuen Nemean.

12. Miniarren aurkako gudaldiaren ondoren, zoratu egin zen Heraren maiterrearen kariaz eta sutara jaurti zituen Megararekin izandako semeak, bai eta Ifiklesenetariko bi ere. Horregatik erbeste-zigorra ezarri zion bere buruari eta Tespiok araztu ondoren Delfosera joan zen eta jainkoari galdetu zion non kokatuko zen. Orduan deitu zion Pitiar apaizemeak lehenengoz Herakles, artean Alzides deitzen baitzitzaion, eta hamabi urtetan Tirinton Euristeoren zerbitzuan bizitzeko esan zion, bai eta honek aginduko zizkion hamar lanak burutzeko ere; eta erantsi zuen lan horiek egin ondoren hilezko izango zela.

V.1. Hau entzunik, Herakles Tirintora abiatu zen eta Euristeok agindu ziona egin zuen. Lehenengo Nemeako lehoiaren larrua ekartzeko agindu zion; animalia zaurituezina zen hau, Tifonek sortua. Lehoiaren bila zebilela Kleonasera iritsi eta alogereko baten etxean hartu zuen ostatu, Molorkorenean; hau oparigai bat hiltzera zihoala, hogeita hamar egun itzaroteko esan zion Heraklesek eta orduan, bera ehizalditik onez itzuliez gero, Zeus Salbatzaileari eskaintzeko oparigaia, eta hilez gero bere ohoretan egiteko oparia heroi gisa. Nemeara heldu eta lehoiaren aztarrenak aurkitu zituen, geziak jaurti zituen lehenbizi haren aurka, baina zaurituezina zela ohartu zenez, borra altxatuta joan zitzaion atzetik. Lehoia ataka biko leize batean babestu zenean, sarreretako bat itxi eta bestetik sartu zen piztiaren bila; gero beso batez iduna inguratu zion eta estu-estu eduki zuen itoarazi arte, eta lepoan hartuta Kleonasera eraman zuen. Hogeita hamar egunetariko azkenean, Herakles hilik zelakoan oparia bere ohoretan egitear aurkitu zuen Molorko eta Zeus Salbatzaileari eskaini zion berak oparigaia, eta ondoren Mizenasera eraman zuen lehoia. Baina Euristeok, bere adorearekin zurtuta, engoitik hirian sartzea debekatu eta bere lanen emaitzak ateen aurrean erakusteko agindu zion. Esan ohienez, ikararen ikaraz, brontzezko tina bat paratu zuen beretzat, lurpean ezkutatzeko, eta lanei buruzko aginduak Kopreo, Pelope elearraren semearen bitartez bidaltzen zizkion. Kopreo honek Ifito hil zuenez Mizenasen bilatu zuen babesa eta Euristeok arazturik han kokatu zen.

2. Bigarren lan gisa Lernako hidra hiltzeko agindu zion. Hau Lernako zingiran hazia zen eta zabaldira ateratzen zen eta ganaduak eta lurrak hondatu ohi zituen. Gorputz eskerga zuen hidrak, eta bederatzi buru, zortzi hilkorak eta erdikoa hilezkorra. Lolaok gidaturiko gurdiaren gainean heldu zen beraz Herakles Lernara; zaldiak geldiarazi zituen eta hidra muino batean, Amimoneko iturburuen ondoan, bere gordelekua zegoen lekuan, idoro zuen. Bere aurka su-geziak jaurtiz irtetzen behartu zuen eta irteteko unean menderatu eta sendo heldu zion; hark ordea, bere zangoetako baten inguruan kiribilkatuta, berari eusten zion. Borraz haren buruak astinduaz ez zuen ezer lortzen, bat zehatzen zuen bakoitzean bi sortzen baitziren haren tokian. Gainera oinean hozka egin zion karramarro itzel bat ere agertu zen hidrari laguntzeko; hura hil eta berak ere lolaori deitu zion lagun ziezaion. Honek su eman zion hurbileko baso sail bati eta, ilintiekin buruen sustraiak erreaz berriak sortzea eragotzi zuen. Honela buruen ugalketari aurrea hartu zionean, buru hilezkorra moztu zion eta Lernan zehar Eleuntera daraman bidearen ondoan lurperatu zuen, gainean harri pisutsu bat jarrita. Gero hidraren gorputza ireki eta bere beha-

zunean busti zituen geziak. Lan hau ezin zela hamar lanen artean zenbatu esan zuen ordea Euristeok, hidra garaitzean ez baitzen bakarrik aritu, lolaoren laguntzarekin baino.

3. Hirugarren lan gisa zerinitiar oreina Mizenasera bizirik eramateko agindu zion. Oreina Enoen zegoen, urrezko adarrak zituen eta Artemisi eskainia zen; horregatik Heraklese ez zuen hil gura, ez eta zauritu ere, eta urte osoan ibili zen bere atzetik. Baina animalia esestearekin nekatuta Artemisio izeneko mendian babestu eta handik Ladon ibaira igaro zenean, Heraklese geziak jaurti zizkion zeharkatzera zihoala; harrapatu zuen eta lepoan hartuta Arkadia arin zeharkatzen hasi zen. Artemis aurkitu zuen ordea Apolorekin batera, eta oreina kentzen ahalegindu zitzaion, berari eskainitako animalia bat hiltzen saiatu zela alatu. Beharturik egin zuela argudiatuz eta erruduna Euristeo zela esanez, jainkosaren sumina baretzea lortu zuen eta animalia bizirik eraman zuen Mizenasera.

4. Laugarren lan gisa erimantoar basurdea bizirik ekartzeko agindu zion. Animalia hau Psofide osoa suntsitzen ari zen, Erimanto deitzen duten mendi batetik azalduta. Foloetik igarotzean Folo izeneko zentauroaren —Sileno eta meliar ninfa baten semea— etxean hartu zuen ostatu Heraklese. Honek okela errea eskaini zion Heraklesi, baina berak beretzat gordina hartzen zuen. Heraklese ardoa eskatu zionean, tina zabaltzeko beldur zela esan zion, zentauro guztiena baitzen. Heraklese ordea beldurrik ez izateko aholkatu eta berak zabaldu zuen; usaina asmatu eta laster batean azaldu ziren zentauroak Foloren leizean, harriz eta izei-makilaz armaturik. Sartzen ausartu ziren lehenengoak, Ankio eta Agrio, euren aurka ilintiak jaurtita uxatu zituen Heraklese, eta gainerakoak Malearaino esetsi zien geziak jurtiaz. Handik Kironen ondora joan ziren babes bila, hau Maleatik hurre kokatu baitzen lapitek Pelion menditik egotzi zutenean. Honen inguruan bildurikoen aurka gezi bat jaurti zuenean, Elatoren besoa zeharkatu eta Kironen belaunean josita geratu zen. Atsekabetuta, lasterka hurreratu zitzaion Herakles; gezia atera zion eta Kironen berak emandako ukendu batez gantzutu zuen. Zauria sendaezina zenez leizera bildu zen Kiron eta han, hil gura zuen arren hilezkorra izanik ezin zuenez, Prometeo prest azaldu zen Zeusen aurrean bestearen orde zera izateko hilezkorra eta horrela lortu zuen hark hiltzea. Beste zentauroek bakoitzak leku batera ihes egin zuten: batzuk Malea mendira joan ziren, Eurition Foloera eta Neso Eveno ibaira. Gainerakoak Poseidonek hartu zituen Eleusisen eta mendi batean ezkutatu zituen. Baina Folok gezi bat atera zuen gorpu batetik eta zurtuta zegoen hain gauza txikiak horren izaki itzelak suntsi zitzaizkion; baina geziak labain egin zion eskutik eta bere oinaren gainera jausita hil egin zuen bat-batean. Herakles Foloera itzultzean hilda ikusi zuen Folo eta hau lurperatu ondoren basurdearen ehizera abiatu zen; garrasika arituz sasiarte batetik atera eta elurtza sakon batera hertsatu zuen nekaturik; orduan lakirioaz lotu eta Mizenasera eraman zuen.

5. Bosgarren lan gisa, egun bakar batean Augiasen ganaduaren simaur guztia ateratzeko agindu zion. Augias, Elideko erregea, Heliosen semea zen batzuen ustez eta beste batzuen aburuz Poseidon edo Forbanterena, eta abelburu asko zituen. Herakles bere aurrean azaldu zen eta, Euristeoren mandatua jakinarazi gabe, ganaduaren hamarren bat beretzat hartzearen truke simaur guztia egun bakar batean aterako ziola esan zion; Augiasek ez zion sinetsi baina hitz eman zion.

Heraklesekin Fileo, Augiasen semea, hartu zuen lekukotzat eta, ukuiluko zimenduetan zulo bat egin ondoren, hurbil ziren Alfeo eta Peneo ibaien uren bidea aldatu zuen, hura zeharka zezaten, irteera beste leku batetik emanez. Augiasekin jakin zuenean Euristeoren aginduz egin zuela, hitz emandakoa ez ordaintzea erabaki zuen, eta are gehiago, ukatu egiten zuen ordaintzea hitz eman zuenik ere, eta esaten zuen prest zela arazo haren inguruan epaitua izateko. Epailleak eseri zirenean, Fileok, Heraklesekin deituta, aitaren aurkako lekukotasuna agertu zuen, saria adostua zutela esanez; Augiasekin, suminduta, Elidetik alde egiteko agindu zien Fileo eta Heraklesi bozketa egin baino lehen. Orduan Fileo Dulikiora joan zen eta han geratu zen bizitzen; Herakles Olenora abiatu zen Dexamenorengana, bere alaba Mnesimaka borodantez kontra Eurition zentauroarekin ezkondu hurren zela; Dexamenok laguntza eskatu zion eta emaztegaiaren bila zihoala hil zuen Eurition. Baina Euristeok hau ere ez zuen hamar lanen artean onartu, ordainaren truke egina zela agudiatuz.

6. Seigarren lan gisa estinfalida-hegaztiak uxatzeko agindu zion. Estinfaloko hirian, Arkadian, Estinfalide izeneko aintzira txiki bat zen, baso txiki ugariak ezkutatua; otsoen beldur ziren hegazti askok bilatzen zuten han babesa. Heraklesekin ez zekien nola aldenarazi haiek sasiartetik, baina Ateneak brontzezko krotaloak eman zizkion, berak Hefestorengandik hartuak. Aintzira ondoan zegoen mendi batetik krotaloak jo eta hegaztiak ikaratu zituen, eta zalaparta jasan ezinik izututa hegan hasi zirenean Heraklesekin bere geziak josi zizkien⁵.

7. Zazpigarren lan gisa Kretako zezena ekartzeko agindu zion. Akusilaok dioenez Zeusen mandatuz Europa garraiatu zuena zen hau, baina beste batzuen arabera Poseidonekin itsasotik sortarazitakoa zen, Minosekin esan zuenean itsasotik irten zedina Poseidoni eskainiko ziola; esan ohi da orobat zezenaren edertasuna ikusirik bere ganadu taldean hartu zuela, Poseidoni beste bat eskainirik eta jaingo honek, haserretuta, basati bihurtu zuela zezena. Halako batean Herakles Kretara iritsi zen honen bila; Minosi eskatu zion laguntza baina berak buru egin eta atzeman behar zuela erantzun zionez, harrapatu, Euristeori bere aurrera eramanez erakutsi eta berriro aske utzi zuen. Zezena Espartatik eta Arkadia osotik ibili zen alderrai eta, istmoa gurutzatuaz, Atikako Maratonera heldu zen eta hango biztanleen hondamena izan zen.

8. Zortzigarren lan gisa Diomedes Traziarraren behorrak Mizenasera ekartzeko agindu zion. Hau, Ares eta Zireneren semea, Traziako herri biziki gudazale baten erregea zen, bistonesena alegia, eta behor gizaki jaleak zituen. Berarekin joan nahi izan zutenekin itsasoratu zen Herakles eta, ukuiluen kargu zirenak garaitu ondoren, itsasorantz eraman zituen behorrak. Bistonesak armaturik iritsi zirenean hauen bila, Abderoren esku utzi zituen honek gorde zitzen; Abdero Hermesekin semea zen, Lokriseko Opunten sortua, Heraklesen maitea, baina behorrek herrestatuz akabatu zuten. Orduan Heraklesekin buru egin zien bistonesei, Diomedes hil zuen eta gainerakoak iheska bidali zituen; Abderako hiria sortu zuen Abdero gizagaixoaren hilobiaren ondoan; behorrak Euristeoren aurrera eraman eta eman zizkion. Baina honek askatu egin zituenez Olinpo izeneko mendira abiatu ziren eta han basapiztiek akabatu zituzten.

5. Ikus Apolonio *Argon.* II 1052-1057, *Escol.* 1054, Diodoro IV 13, 2, Pausanias VIII 22, 4, Higino *Fab.* 20 eta 30.

9. Bederatzigarren lan gisa Hipolitaren gerrikoa ekartzeko agindu zion Heraklesi. Amazonen erregina zen hau; amazonak Termodonte ibaiaren inguruan bizi ziren eta leinu ezaguna ziren gerra kontuetan, gizonezkoenaren antzeko bizimodua baitzuten eta sexu harremanen baten ondorioz erditzen zutenean soilik emeak hazten baitzituzten; estutu egiten zuten eskuineko bularra, desarratzean trabarik egin ez zezan, eta ezkerrekoa gordetzen zuten umeak hazi ahal izateko. Hipolitak Aresen gerrikoa zuen, beste guztiak baino gehiago zela erakusteko. Gerriko honen bila bidali zuten Herakles, Admetek, Euristeoren alabak, beretzat gura baitzuen. Borondatez berarekin elkarturiko taldearekin batera itsasoratu zen ontzi bakar batean eta Parosen lehorreratu zen; hemen Minosen semeak bizi ziren: Eurimedonte, Krises, Nefalion eta Filolao. Baina lehorreratzean eskifaiako gizon bi hil zituzten Minosen semeek. Heraklesek, haserretuta, hil egin zituen hauek eta gainerakoak hertsiki setiatu zituen, desagerturikoen orde berak nahi zituen bi aukeratzeko proposatu zioten arte mandatarien bitartez. Orduan setioa kendu eta Misiara abiatu zen Herakles, berarekin Altzeo eta Estenelo, Androgeoren semeak, hartuta (Androgeo Minosen semea zen); Likoren (Dasziloren semea) aurrean aurkeztu zen eta honek ostatu eman zion. Likok bebrizeen erregearen aurkako borrokari ekin zionean, Heraklesek lagundu zion, bai eta Migdon erregeari ere, Amikoren anaiari; bebrizeen lurren zati handi bat bereganatu zuen eta Likori eman zion eta honek Heraklea deitu zion hari guztiari.

Temiszirako portura iritsi zenean, Hipolita joan zitzaion bidera eta ikustaldia-
ren zergatia galdetu ondoren, gerrikoa emango ziola hitz eman zion. Baina Hera, amazona antza hartuta, hara eta hona ibili zen jendetza artetik, lehorreraturiko arrotzek erregina bahitua zutela esanez; orduan amazonek, zaldi gainean armaturik, itsasontziaren aurkako erasoari ekin zioten. Heraklesek armaturik ikusi zituenean, saldukeriaren ondorio zela pentsatuta, Hipolita hil eta gerrikoa kendu zion; gainerakoekin borrokatu eta gero, itsasoratu eta Troian lehorreratu zen.

Garai hartan zorigaitzaren mende zen hiria, Apolo eta Poseidonen suminaren ondorioz. Hauek, Laomedonteren harrokeria tentatu nahian, giza-itxura hartu zuten eta soldata baten truke hiria gotortuko ziotela berbatu zuten; baina gotortze lana burutu ondoren hark ez zien ordaindu. Horrenbestez Apolok izurritea bidali zien eta Poseidonek itsas mustro bat, marea gora etortzen zenean azaleratu eta zabaldian ziren gizaki guztiak harrapatzen zituena. Orakuluek jakinarazi zutenean soilik Laomedontek bere alaba Hesione itsas mustroari jateko eman ez gero amaituko zela zoritxar hura, itsasertzeko haitz batzuetara lotu eta haren esku utzi zuen. Han lagata ikustean, berak salbatuko zuela hitz eman zuen Heraklese, baldin eta Laomedontek ematen bazizkion Ganimedes bahitzeagatik ordainetan Zeusengandik harturiko behorrak. Laomedontek baietz esan bezain laster, mustroa hil eta Hesione salbatu zuen Heraklese, baina hark berbaturikoa eman nahi izan ez zenez, Herakles itsasoratu egin zen Troiaren aurkako gerrari ekingo ziola mehatxatu ondoren.

Enon porturatu zen eta Poltisenean hartu zuen ostatu. Eniako kostaldetik abiatzen ari zela, Sarpedon, Poseidonen seme eta Poltisen anaia, hil zuen geziak josita, lotsa gabe jokatu baitzuen berarekin. Gero Tasosera iritsi zen eta han bizi ziren traziarrak menderatu ondoren Androgeoren semeen esku utzi zuen han bizi zitezen. Tasosetik Toronera joan zen eta han Poligono eta Telegono, Proteoren

semeak (Poseidonen semea zen Proteo), hil zituen borrokaldian, borroka egiteko erronka jo baitzioten hauek. Ondoren gerrikoa Mizenasera eraman eta Euristeori eman zion.

10. Hamargarren lan gisa Eritiatik Gerionen behiak ekartzeko agindu zion. Eritia Ozeanotik hurbileko uharte bat zen, orain Gadira deitzen dena. Han Gerion bizi zen, Krisaor eta Kalirroeren (Ozeanoren alaba zen Kalirro) semea. Honen gorputza hiru gizonena zen, bakar bat eginda gerritik gora, baina mehaka eta izterretan hirutan banatua. Behi gorri batzuk zituen; Eurition zen behizaina eta zaindaria Orto, buru biko zakurra, Ekidna eta Tifonengandik jaioa. Horrenbestez Europan zehar ibili zen Gerionen behi hauen bila eta Libiaraino iritsi zen pizti basati ugari akabatu ondoren; Tartesosera iristean, bi zutabe eraiki zituen Europa eta Libiaren arteko mugan, bata bestearen aurrez aurre, bere ibilaldi haren oroigarri gisa. Bidaiari kiskali egin zuen Heliosek eta jainko honen aurka tenkatu zuen arkuak; jainkoak, bere adorea miretsirik, urrezko kopa bat oparitu zion eta honen barruan zeharkatu zuen ozeanoa. Eritiara heldu zenean Abante mendian kanpatu zen; zakurrak ohartu bezain laster eraso zion, baina Heraklesek borraz astindu zuen eta Eurition behizaina hil, zakurrari laguntzera hurbildu baitzen. Orduan Menetesek, Hermesen behiak alhatzen han hurrean zegoenez, Gerioni jakinarazi zion gertaturikoa. Honek Antemunte ibaiaren ondoan harrapatu zuen Herakles ezustean, behiak zeramatzala, eta borrokari ekin zioten; gezi batek jota hil zen Gerion. Heraklesek kopa barruan ontziratu zituen behiak eta itsasoz Tartesosera iritsi zenean Heliosi itzuli zion kopa hau.

Abderia zeharkatu ondoren Liguriara heldu zen eta hemen, lalebion eta Dertzino, Poseidonen semeak, behiak lapurtzen ahalegindu zitzaizkion. Hauek hil eta bere bidean jarraitu zuen Tirrenian zehar⁶. Region zezen bat aldendu zen taldetik eta, laster batean itsas zabalean barneratuta, Siziliara heldu zen igerian; auzoko lurraldea —geroztik honengatik Italia deitu dena, tirreniarrek *italus* esaten diotelako zezenari— zeharkatuz Erix elimoen erregearen ordokira heldu zen. Erix Poseidonen semea zen eta bere abeltaldean hartu zuen zezena. Orduan Heraklesek Hefestoren esku utzi zituen behiak eta zezenaren bila abiatu zen bera; Erixen abeltaldean artean aurkitu zuenean, honek esan zion ez ziola itzuliko borrokan irabazten ez bazion. Heraklesek hiru bider menderatu eta hil egin zuen eta zezena berarekin hartuta Joniar itsasora eraman zuen besteekin batera. Baina itsaso honetako ainguratokietara iritsi zenean Herak ezpara bat bidali zuen behien aurka eta hauek Traziako inguru malkartsuetatik barreiatu ziren. Herakles hauen atzetik joan zen eta, batzuk bildu zituenean, Helesponto eraman zituen; bertan geratu zirenak basati bihurtu ziren gero. Behiak biltzen izan zituen zailtasunen errua Estrimon ibaiari egotzi zion eta, harkaitzez beteaz, nabigagaitz egin zuen bere ibilgua, lehenago nabigagarri izandakoa. Gero behiak hartu eta Euristeoren esku utzi zituen; honek Herari sakrifikatu zizkion.

11. Lanak zortzi urte eta hilabetean bete ondoren, Euristeok Augiasen ganaduarena eta hidrarena onartzen ez zituenez, hamaikagarren bat agindu zion: Hesperideen urrezko sagarrak ekartzea. Hauek Atlasen zeuden, Hiperboreoen artean, eta ez, zenbaitek dioen bezala, Libian. Geak Zeusi oparitu zizkion Herarekin

6. Apolodorok ez ditu Heraklesen Italiako pasadizoak kontatzen, besteak beste Kakoren pasarteak. Ikus Virgilio *Eneida* VIII 201 hh., Ovidio *Fasti* I 543 hh., Diodoro IV 20-22.

ezkondu zenean. Herensuge hilezkor batek gordetzen zituen; herensuge hau Tifon eta Ekidnaren semea zen, ehun burukoa, eta ahots mota desberdin asko erabil-tzen zituen; berarekin batera Egle, Eritia, Hesperia eta Aretusak ere gordetzen zituzten Hesperideak. Horrela Herakles Ekedoro ibaira iritsi zen oinez eta han Ziknok, Ares eta Pireneren semeak, buruz buruko borrokaldirako erronka jo zion. Aresek Zikno defendatzen zuen eta bera zen lehian burua, baina bien artean jausi zen oinaztu batek eten zuen borrokaldia. Herakles, Ilirian zehar ibiliaz, Eridano ibaira abiatu zen lasterka eta ninfen ondora (Zeus eta Temisen alabak ziren nin-fak) ailegatu zen. Hauek erakutsi zioten non zen Nereo eta Heraklesekin lotan zela atzeman zuen; askotariko formak hartzen zituen arren, lotu zuen eta ez zuen askatu sagarrak eta Hesperideak non ziren jakinarazi zion arte. Hau jakin zuenean Libia zeharkatu zuen, Anteoren erresuma; Poseidonen semea zen Anteo eta arro-tzak borrokatzera behartu eta akabatu ohi zituen. Herakles ere behartu zuen borrokatzera eta honek hil zuen estekaturik airean zuen bitartean itoarazita, lurra jotzearekin bat indar berria hartzen baitzuen, zenbaiten esanetan Gearen semea zelako.

Libiaren ondoren Egipto zeharkatu zuen; Busiris zen hango erregea, Posei-don eta Lisianasaren (Epaforen alaba) semea. Honek Zeusen aldarean hil ohi zituen arrotzak opari gisa orakulu bat betetzearren, azken bederlatzi urteetan antzutasuna baitzen nagusi Egipton eta Frasiok, Zipretik iritsitako igerle aditu batek, esan baitzuen antzutasuna desagertuko zela urtero Zeusen ohoretan gizonezko arrotz bat hil eta eskainiz gero. Orduan Busirisek igerleari berari moztu zion lepoa lehenengo eta gero etorri ahala arrotzei. Herakles ere atxilotu eta aldareetara eraman zuten, baina lokarriak hautsi eta hala Busiris nola Anfidamante semea hil zituen.

Asia zeharkatu eta Termidrasera iritsi zen, lindioen portura, eta itzain baten gurditik idi bat askaturik, hau hil eta idi-jana antolatu zuen. Itzainak bere burua defendatzeko modurik ez zuenez, muino baten tontorrean geldituta madarikatu zuen. Horregatik esaten da are gaur ere, Heraklesen ohoretan eskaintzen direnean opariak, madarikazio artean ospatzen direla.

Arabiatik igarotzean Emation hil zuen, Titonoren semea, eta Libian zehar kanpoko itsasoraino joan zen oinez, eta han Heliosen eskutik hartu zuen kopa. Gero aurrez aurreko kontinenteraino zeharkatu zuen itsasoa eta Kaukason Ekidna eta Tifonengandik jaiotako arranoa bota zuen geziez lurrera, Prometeoren gibela irensten ari zena; Prometeo askatu eta olibondo abarrez eginiko sorta bat hautatu zuen beretzat; Zeusi Kiron eskaini zion, hilezkorra izan arren bestearen lekuan hiltzeko prest zena.

Hiperboreoen herrialdera iritsi zenean Prometeori kasu eginez Atlanteren lekua hartu zuen, hark esana baitzion sagarren bila bera joan beharrean Atlanteren lekua hartzeko zeru sabaiari eusten eta hura bidaltzeko bere orde-z. Hesperideek Atlanteri hiru sagar eman zizkietenean Heraklesengana itzuli zen; baina sabaiari eusten jarraitu nahi ez zuenez <esan zion berak eramango zizkiola sagarrak Euristeori eta zeruari eusten jarraitzeko bere orde-z. Baietz esan zion Heraklesekin baina amarru baten bitartez berriro Atlanteri eman zion, Prometeoren aholkuz eskatu baitzion berak eusteko zeruari> buru gainean kuxin bat jarri arte.

Hau entzutean Atlantek lurtean utzi zituen sagarrak eta berriro eutsi zion zeru sabaiari; Heraklesek sagarrak batu eta alde egin zuen. Zenbaitek dioenez, ordea, ez zituen Atlanterengandik hartu, berak atzeman baitzituen gordetzen zituen sugea hil ondoren. Sagarrak eraman eta Euristeori eman zizkion, baina honek, behin bere esku eduki eta gero, Heraklesi oparitu zizkion; honengandik hartu zituen Ateneak eta jainkosak beren lekuan jarri zituen, ez baitzen zilegi beste inon egotea.

12. Hamabigarren lan gisa Hadesetik Zerbero ekartzeko agindu zitzaion. Honek hiru zakur buru zituen, herensuge buztana, eta bizkarrean suge mota askoren buruak. Honen bila abiatu baino lehen Eumolporen aurrean azaldu zen Eleusisen, misterioetan sarbidea egiteko asmoz. Garai hartan arrotzek ez zuten sarbidea egiteko baimenik, baina Piliok semetzat hartua zenez egin zuen. Misterioak ezin zituen ikusi ordea, zentauroen hilketaren ondoren araztu gabea zelako; Eumolpok araztu zuen eta orduan hartu zuen sarbidea. Gero Tenarora abiatu zen, Lakoniara; Hadesera jaisteko ahoa zegoen han eta bertatik behera joan zen. Arimek ikusi zutenerako ihesari eman zioten, Meleagorenak eta Gorgona Medusarenak izan ezik. Bizirik bailitzan atera zuen ezpata Gorgonaren aurka, baina Hermes bitartez jakin zuen irudi hutsa zela. Hadeseko ateetatik hurbil zela, Teseo eta Piritoo aurkitu zituen, Persefonerekin ezkondu nahi izan zutelako kateatuak izan zirenak. Herakles ikustean beregana luzatu zituzten eskuak, honen indarrari esker bizi berria hartzeko balitz bezala. Teseori eskutik heldu eta altxatu zuen baina Piritoo utzi egin behar izan zuen, altxatzen ahalegintzean lurrak ikara egin baitzuen. Askalaforen harria ere kanpora atera zuen biraka. Arimei odola emateko Hadesen behietako bati moztu zion lepoa, baina hauek alhatzen ari zen Menetesek, Zeutonimoren semeak, borrokaldirako erronka jo zion Heraklesi eta honek, gerritik hartuta, saiheutsak hautsi zizkion, baina Persefone sartu zen tartean haren alde. Gero Plutoni eskatu zion Heraklesek Zerbero; Heraklesek berarekin zituen armak erabili gabe menderatuz gero, eraman ahal izango zuela ebatzi zuen hark. Akeronteko atean aurkitu zuen Heraklesek; armaduraz babestuta eta lehoi larruaz estalita, eskuak buru bueltan jarri zizkion eta buztaneko herensugeak horzka egiten zion arren ez zuen askatu, amore eman arte eutsi eta estutuz. Bere mende izan zuenean itzultzeari ekin zion Trezenetik igoz. Demeterrek hontza bihurtu zuen Askalafon eta, Euristeori erakutsi ondoren, Hadesera bidali zuen berriro Zerbero Heraklesek.

VI.1. Lanak burutu ondoren Tebasera iritsi zen Herakles eta Megara eman zion lolaori; baina bera ere ezkontzeko irrikitan zegoenez, jakin zuen Euritok, Ekaliako erregeak, lole bere alaba ezkontzeko eskaini zuela, sari gisa, arkua erabiltzen berari eta bere semeei irabaz diezaienarentzat. Ekaliara joan zen eta, arkua erabiltzen garaile izan bazen ere, ez zuen ezkongaiak lortu, lfitok, seme nagusiak, eman egin behar zitzaiola esaten zuen arren Euritok eta gainerakoek ez baitzuten gura, seme-alabak sortzean umeak berriro hilko zituen beldur zirela esaten baitzuten.

(...)

II.VII.5. Herakles Kalidonera iritsi zenean, Deianira, Eneoren alaba, nahi izan zuen beretzat, baina Akelooaren aurka lehiatu beharra izan zuen harekin ezkontzea

lortzearren; Akelook zezen antza hartua zuen eta adarretako bat hautsi zion. Deianirarekin ezkondu zen eta Akelook bere adarra berreskuratu zuen Amaltearena hartuta trukean. Amaltea Hemonioren alaba zen eta adar bat zuen, Ferezidesen arabera nahi zen jana eta edana eskuzabaltasunez emateko gaitasuna zuena.

6. Kalidoniarekin batera tesprotoen aurka abiatu zen Herakles eta Efirako hiria, Filante errege zuena, menderatu zuenean Astiokerekin (erregearen alaba) elkartu zen eta honek Tlepolemoren aita egin zuen. Hauekin bizi zela, mandatariak bidali zituen Tespiorengana aginduz bere semeetariko zazpi berarekin edukitzeko, hiru Tebasera bidaltzeko eta gainerako berrogeiak Sardiniako uhartera igortzeko hura kolonizatzerako. Gertakizun hauen ondoren, Eneorekin batera oturuntza batean zela, ukabilaz jota hil zuen Arkitelerekin semea, Eunomo, eskuetara ura isurtzen ari zitzaiona. Hau Eneoren senitartekoa zen, baina mutilaren aitak barkatu egin zuen gertaturikoa, nahi gabe izan baitzen; Heraklesekin ordea legeak ezarritako erbeste zigorra bete nahi izan zuen eta Trakisera abiatzea erabaki zuen, Zeixengana. Eveno ibaira heldu zen Deianirarekin batera; Neso zentauroa zegoen han, ibiltariei bidesaria ordainarazi eta gurutzatzen laguntzeko, bere zintzotasunaren ordainetan jainkoek berari emandako eginkizuna zela baieztatzen baitzuen. Heraklesekin berak bakarrik zeharkatu zuen ibaia eta Nesok bidesaria eskatu zionean Deianira utzi zuen bere esku beste bazterrean igaro zezan. Baina beste aldera zeramala, Deianira bortxatzen ahalegindu zen Neso. Heraklesekin, garrasiak entzutean, bihotzean zauritu zuen gezi batez Neso, ordurako ibaitik kanpoan zegoena. Hil hurren zela, Nesok Deianirari dei egin eta esan zion Heraklesentzako amodio-isurkaria nahi izanez gero nahasteko berak lurrera botatuko hazia geziak eginiko zauritik zerion odolarekin. Horrela egin zuen Deianirak eta isurkaria gorde zuen.

7. Heraklesekin jan-hornigairik gabe driopeen lurra zeharkatzen zuela, Tiodamanterekin egin zuen topo; zezen uztarri bat zeraman honek eta hark bat askatu, lepoa moztu eta oturuntza egin zuen. Zeixen aurrera iritsi zenean Trakisen, harrera ona egin zion honek eta driopeak garaitu zituen.

Gero handik alde egin eta Egimioarekin aliatu zen, doriarren erregearekin, lapitak, Korono buruzagiarekin, honen aurkako gerran baitziharduten lurraldearen mugak zirela-eta; bere burua setiatu ikusi zuenean Heraklesi deitu zion laguntza eske, bere lurren zati baten trukean. Herakles laguntzera joan zitzaion, Korono eta beste batzuk hil zituen eta askaturiko lurralde osoa eman zion Egimiori. Laogoras, driopeen erregea eta honen semeak ere hil zituen Apoloren barruti sakratuan oturuntza egiten ari ziren bitartean, ozarregia eta lapiten aliatua baitzen. Itonotik igarotzean Ziknok, Ares eta Pelopiaren semeak, buruz buruko borrokaldirako erronka jo zion; aurka egin zion eta hau ere hil zuen. Ormeniora ailegatu zenean, Amintor erregeak, armaturik, ez zion igarotzen utzi nahi izan eta bidea eragozten ahalegindu zenean hau ere hil egin zuen.

Trakisera heldu zenean, Euritoren aurka mendeku hartu nahian, gudaroste bat bildu zuen Ekaliaren aurka erasotzeko. Arkadiarrak, Trakiseko meliarrak eta lokriar epiknemidiarrak bildu zitzaizkion aliatu gisa, eta Eurito eta semeak hil ondoren hiriaren jabe egin zen. Bere gudataldean eroritakoak —Hipaso, Zeixen

semea, eta Argio eta Melas, Lizimnioren semeak— hilobiratu zituen eta ondoren hiria arpilatu eta lole eraman zuen gatibu. Eubeako lurmutur batean, Zeneon, bota zuen aingura eta aldare bat eraiki zuen Zeus Zenearraren ohoretan. Apaiz eginkizuna berak bete nahi zuenez Likas mezularia bidali zuen Trakisera jantzi distirant baten bila. Honek azaldu zion Deianirari loleri buruzkoa eta Heraklesekin hura gehiago maita zezakeelako beldurrez, Nesok isuritako odola benetako amodio-isurkaria zela pentsatuta, honekin busti zuen tunika. Heraklesekin hau jantzi eta opari-eskaintza hasi zuen; baina tunika berotu zenean, hidraren pozoia bere larrua jaten hasi zen. Oinetatik estekaturik altxatu eta Beoziatik kanpo jaurti zuen Likas; goputzean itsasten zitzaion tunika eta erantzi nahi zuen, baina harekin batera haragi puskak ateratzen zituen. Halako oinazeekin Trakisera eraman zuten ontzi batean. Deianirak gertaturikoa jakin zuenean bere burua urkatu zuen. Heraklesekin Hilori, Deianirarekin izandako seme nagusiari, eskatu zion gizon egindakoan lole hartzeko emaztetzat; bera Eta mendira joan zen, Trakiseko lurraldean, eta han txondor bat eginarazi, gainera igo eta su emateko agindu zuen. Inork egin nahi ez zuenez, Peantek eman zion su bere ganaduen bila handik igarotzen zela; horregatik bere arkua oparitu zion Heraklesekin. Esan ohi da txondorra sutan zegoen bitartean laino bat jarri zela haren azpian eta trumoi artean igo zuela zerura. Harrezkero hilezkortasuna erdietsi zuen eta, Herarekin berriro adiskidetu, honen alabarekin ezkondu zen, Heberekin, eta bi seme izan zituen honekin, Alexiakes eta Anizeto».

3. Herkules Hollywooden

XX. mendean, zinemaren bitartez ezagutu dugu batik bat Herkules. Dozenaka bertsio grabatu dira zeluloidean, eta gehienbat gizaki indartsuaren irudia erakutsi zaigu. Askotan mitologia grekolatindarreko beste elementu batzuen kutsadura agertzen da; adibidez 1957ko Pietro Francisciren *Hercules* filmean urrezko ardilaruaren bilaketa da hari nagusia, berez Jasonek izan beharko lukeen lehentasuna Herkulesi emanez.

Azken superproduktzioa Walt Disneyren 1997ko film luzea da, Herkules marrazki bizidunetan agertaraziz. Interesgarria da film honi buruz Disneyk berak zabalduko argibideak irakurtzea (Disney 1997: 81-84):

Herkules, Disney-ren 35. luzemetraia animatua, komedia epikoa da. Horrez gain, Disney etxeak ekoiztutako lanen artean mitologia klasikoan oinarritzen den lehena ere bada. Superheroiaren abentura ia-ia sinestezinen bertsio berezi samarra eskaintzen digu filmeak eta huskeriatik erdijainko izatera iristen den arteko bidea deskribatzen digu, beti ere ikuspuntu barregarria aprobetxatuz. Bide horretan barrena doala, benetako heroiak izatea zertan datzan ezagutu ahal izango du eta Olinpoko jainkoen artean dagokion tokia berreskuratuko du. (...) Burutu beharreko lanak anitz eta oso desberdinak diren arren (mustroei aurre egin, hidra, herensuge eta abarren aurka borrokatu...) amodioa izango da Herkules gaudituko duen bakarra, benetako heroi baten izatea bihotzaren indarrean neurtzen dela ulertzen baitu, eta ez jendeak uste duen bezala indar fisikoan.

(...) Herkules heroi grekoa da: indartsua, ederra eta sineskorra. Mito handien erara sortu eta moldatua izan da. Bere eguneroko eginkizunen artean mustro

itsusiekin borrokatzea eta arriskuan dauden dontzeilak askatzea. Baina berandu gabe ikasiko du "benetako heroi" izatea ospetsua izatea baino zerbait gehiago dela.

Alegia, berrinterpretatu egiten da Herkules, Disneyk XX. mendearen amaieran saldu nahi dituen baloreen eredu gisa aurkeztuaz: indartsua baina maitagarria, piska bat kokoloa baina eskuzabala, heroia eta kaleko gizona... Horretarako mitoa- ren bertsio hedatuenak biltzen dituen hamabi lanetatik soilik hiru moldatzen eta garatzen ditu: Neso zentauroarena, Hidraarena eta erraldoiarena⁷.

Baina jokabide hau ez da XX. mendeko zinemagintzaren asmakizuna. Garai guztietako arte genero guztiek egin dute berdin: greziar klasikoen antzerkigintzan, margolaritzan, eskulturan... Euskal Herrian ere ez dira gutxi horren lekukotasunak, batik bat XVI. mendeko lanetan.

4. Herkules Euskal Herrian

1643an argitara emandako Axularren *Gero* liburuak honela dio 35. atalean:

Iklusiko duzu iende handi batzuen etxetan, Herkules sendo famatu hura pintatua, makilla borra bat, edo maillu handi bat, eskuan duela, baitirudi ezen hartzaz, etxean sartzen diren guztiei buruak hautsi behar deraustela. Ordea nola Herkules hura, harriz, zurez edo kobrez egina baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago, kheinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hala dira bada, gerotik gerora dabiltzanak ere.

Esanguratsua da aipamena, mendebalde osoan hedatua zen garaiko moda baten berri ematen baitu Sarako erretorak. Izan ere Aro Berrian mitologiak indar berria hartzen du eta mito grekolatindarrei zentzu kristaua ematen zaie doktrina erakusteko; bestalde arkitektura mintzoduna zabaltzen da, irudi esanguratsuekin. Ondorioz Berpizkundeko jauregi, eliza eta unibertsitateetan ohikoa zen *uomini famosi* edo gizaki eredugarrien irudiak agertzea. Hauen artean Herkules gailentzen zuen Petrarkak, hamabi lanak burutzean onbideaz gaitz guztiak gaindi daitezkeela erakutsi zuelako.

Euskal Herrian ohitura honen lekukotasunik aipagarriena **Bianako Santa Maria Elizako** aurrealdea da. Atari hau 1549 eta 1579 urteen bitartean egin zen. Elementu sakratu eta profanoen konbinaketa agertzen da zirkuluerdi itxurako atartean, ikonofrafia sakratua goian eta profanoa beheko frisoan irudikatuta. Beheko friso honetan 31 eszena daude eta hauetako bostetan zalantzarik gabeko Herkulesen lanak identifikatu ditu González de Zarate (1988: 186-189) ikerlariak: Nemeako lehoia, Neso zentauroa, Lerna eskualdeko Hidra, Kako zezen-lapurra eta harpien (hegaztien) aurkako borroka.

XVI. mendearen bigarren zatian eginiko **Oñatiko Unibertsitatearen** kanpo aldean ere sakratuaren eta paganoaren arteko bikoiztasun bera dugu, hemen ere sailduak goian eta elementu ez sakratuak beheko aldean aurkeztuta. Gorago

7. Erraldoiaren pasartean ez da Anteo izena aipatzen, Ziklopea baino, eta marrazkietan mustro begibakarra agertzen da, kontakizun bien arteko kutsaduraz.

aipatu dugun ikerlariak (González de Zarate 1992: 87-100) Herkulesen lau agerraldi identifikatzen ditu: Herkules eta Nemeako lehoia, Neso zentauroak Deianira harrapatzen dueneko, Herkules hidraren aurkako borrokan, eta azkenik Herkules eta Anteoren arteko borrokaldia.

Baina eraikin honetan badira beste Herkules bi ere, klaustroan alegia, medailoietan. Batean Hebe jainkosa-emaztearekin egiten du bikotea Herkulesek, lehoi-buruarekin; bestean Carlos I.a bera da, Isabel emaztearekin bikotean, buruan lehoi-ahutzak jantzita, Herkules berri gisa identifikatzen dena (González de Zarate 1992: 57-58).

Enperadore baten irudiarekin, Carlos V. arekin alegia, lotzen da orobat 1530-1540 bitartean eginiko **Aguraineko Santa Maria elizako** koroan, ekialdeko aitzinaldean, dagoen Herkules umea. Herkules dela dakigu eskuan borra duelako, bere hamabi lan ezagunetan ez diharduen arren (Ugalde 1998: 352, 354).

Amorotoko San Martin elizako erretaulan ere Herkules umea dago, eskuko mailutzarrak salatzen duenez (Barrio 1992: 176, 178). Erretaula hau 1560ko hamarkadan burutua denez, gainerakoen hurbileko testuinguru berean koka daiteke. Gainera lan hau ere sakratuaren eta profanoaren arteko bikoiztasunaren lekuko da, beheko aldeko friso txiki batean landuta baitago, ia miniatura moduan, goia sailduen irudientzat utzita.

Lizarrako San Cristobal Jauregia, egun Fray Diego Lizarrakoa Kultur Etxea deitzen dena, 1540a baino lehen eraiki zen, Diego de San Cristobal Ballesteros y Eguía jaunak eta bere emazteak, María Cruzat y Jaso andreak aginduta (Díaz & Llanos s.d.: 9-10 eta García Gainza et al. 1982: 577-578). Fatxadaren ezker aldeko balkoiaren gaineko frisoan Herkulesen hamabi lanetatik lau erakusten dira: Lernako hidrarekin borrokan lolao adiskidearen laguntzarekin, Anteo beso artean estutzen, Nemeako lehoia borraz astintzen eta Neso zentauroaren aurkako jardunean.

Lizarratik kilometro gutxira dago Aiegin **Iratzeko Monasterioa**, jatorriz unibertsitate izateko egina. 1540 eta 1589 urteen bitartean eginiko klaustro platereskoan mentsuletara begiratu behar dugu Herkulesen lanak aurkitzeko. Hegoaldeko horman, bostgarren zutoinei dagokien mentsulan, buztanari horzka ari den suge edo hidrarekin dago Herkules, *Honor Literas Invidiam Dolor Aegestas Inscitiam* inskripzioarekin. Baina klaustroko kanpoko medailoietan ere badago Herkules, iparrekialdeko medailoi batean hain zuzen, Hebe emaztearen ondoan (García Gainza et al. 1982: 316-317).

Mustro batekin borrokan agertzen da orobat **Gasteizko Escoriaza-Esquibel Jauregiaren** aurrealdean, ate gainean, ezkerretara, buruan lehoi-larrua jantzita eta borra eskuan hartuta mustroa astintzeko prest. Zerbero Zakurra ikusi nahi izan du González de Záratek (1987: XXXI-XXXII) XVI. mendeko bigarren herenean datatu nahi duen eraikin honetan, baina uste dugu berdina izan litekeela Lerna eskualdeko Hidra (honen alde egingo genuke) edo Ledo dragoia, edo are gaitza irudikatu nahi duen mustro zehaztugabea.

5. Herkules Oiartzunen

Goiko ereduak ezagututa, errazagoa da Aranburu Jauregiko zutabea ulertzea. Herkulesen hiru agerraldietan erraz ezagutzen dira hiru lan.

5.1. Herkulesen hiru lan

Lehoi-burua eta larrua burutik behera dituen eszenan gizaki bat besarkatzen ari da Herkules eta gizaki honen oinetako bat airean dela erdi-ikusten da (ikus 1. irudia). Anteo da, indarra lurra ematen dionez Herkulesek airean estekaturik estutu eta hil zuena (Apolodoro II, V, 11):

Poseidonen semea zen Anteo eta arrotzak borrokatzera behartu eta akabatu ohi zituen. Herakles ere behartu zuen borrokatzera eta honek hil zuen estekaturik airean zuen bitartean itoazazita, lurra jotzearekin bat indar berria hartzen baitzuen, zenbaiten esanetan Gearen semea zelako.



1. irudia.

Borra eskuan hartuta agertzen den eszenan, suge antzeko batekin dihardu borrokan Herkulesek (ikus 2. irudia). Hesperideak zaintzen zituen herensugea izan liteke kiribilkaturik ageri den mustroa (Apolodoro II, V, 11):

Hamaikagarren bat agindu zion: Hesperideen urrezko sagarrak ekartzea. (...) Herensuge hilezko batek gordetzen zituen; herensuge hau Tifon eta Ekidnaren semea zen, ehun burukoa, eta ahots mota desberdin asko erabiltzen zituen.



2. irudia.

Baina identifikatu liteke baita Lerna eskualdeko hidrarekin ere (Apolodoro II, V, 2):

Gorputz eskerga zuen hidrak, eta bederatzi buru, zortzi hilkorrak eta erdikoa hilezkorra. (...) Irteteko unean menderatu eta sendo heldu zion; hark ordea, bere zangoetako baten inguruan kiribilkatuta, berari eusten zion. Borraz haren buruak astinduaz ez zuen ezer lortzen, bat zehatzen zuen bakoitzean bi sortzen baitziren haren tokian.

Hirugarren eszenan gizakiaren ezaugarriak ez dira ondo ikusten, baina argi da lau hankako animalia batekin borrokan ari dela, gizakia eta piztia biak zutik jarrita. Gizakiaren besoak aberearen idunaren parean dira eta aberearen atzeko oinak gizakiaren belauen parean (ikus 3. irudia). Zalantzarik gabe, Nemeako lehoia itotzen ari da Herkules (Apolodoro II, V, 1):

Lehoia ataka biko leize batean babestu zenean, sarreretako bat itxi eta bestetik sartu zen piztiaren bila; gero beso batez iduna inguratu zion eta estu-estu eduki zuen itoarazi arte.



3. irudia.

5.2. Hiru lanen irakurketa alegorikoa eta irakaspena

Onbidearen eredia da Herkules XVI. mendeko artearen hizkuntzan. Baina bere lanetako bakoitzak zerbait berezia adierazi nahi du. Hala adierazten du esaterako Enrique de Villenak 1417.ean katalanez eta gero gaztelaniaz argitaraturiko *Tractado de los doze trabajos de Hércules* liburuak. Herkulesen hamabi lanak banan-banan aztertzen ditu, bakoitzaren laburpena, kontakizuna (*istoria nuda*), azalpen alegorikoa (*declaración*), ustezko oinarri historikoa (*verdad*) eta gizarte maila bakoitzari dagokion irakaspena (*aplicación*) azalduaz.

Esanguratsua da Villenak zutabeaz azaltzen diren hiru lanetatik ateratzen duen irakaspena.

Anteo erraldoiaren garaipena irakasleari dagokio (Villena 1958 ed.: 92):

Entre los otros el estado de maestro puede tomar norma de virtudes e osar todos vicios reprehender, mayormente los apetitos carnales que derechamente son enemigos e contrarios de çiençia, destruidores de aquel estado magistral.

Hidraren garaipena gizaki orori dagokio Villenaren arabera, baina gehienbat nekazariari (Villena 1958 ed.: 71):

Conviene bien tal semejança a los estados del mundo, señaladamente al de los labradores que non se deven dar a delicadamente bevir nin estar en oçiosidat o en vano.

Mustroa Hesperideen sagarrak gordetzen zituen herensugea balitz, elizgizonari legokioke batik bat (Villena 1958 ed.: 45):

En aqueste trabajo puede qual se quier de los estados del mundo aver e tomar dotrina a su mejoramiento e conservaçon. Mayormente el estado de religioso a quien pertenesçe propiamente darse del todo a la sçiençia porque pueda exponer e demostrar los secretos e bienes de la santa escriptura.

Azkenik Nemeako lehoiaren garaipena prelatuarentzat, elizgizon kargudunarentzat (gotzaina, kardinala...) da beste inorentzat baino irakasgai egokiagoa (Villena 1958 ed.: 26-27):

E puedese moralmente aplicar a los estados del mundo e mejor e muy propiamente e singular al estado del perlado, entendiendo por aquella comarca onde el leon morava qual se quier prelatura a quien la selva de viçios es açercada. E maguer tenga en si muchas bestiales costumbres, la sobervia es aquella entendida por el leon que da el enojo mayor por ser cabeça de los viçios e primero en orden de las culpas mortales. (...) Aun se puede entender en otra manera quando el perlado contradize o se opone al poder tenporal que por manera leonina quiere las prehemencias, derechos e inmunidades de la iglesia antonomasica infringir o quebrantar. Entonçes el perlado derribe e abaxe la sobervia de los tales.

5.3. Zutabearen goiko alde

Herkulesen hiru lanen gain-gainean den irudi erdiezabatuak arranoaren hegoak marraztuko balitu, adimenaren aurkezpen neoplatonikoa litzateke.



4. irudia.

Goienean, zutabearen jabearen armarrria agertzen da (ikus 4. irudia). Zoritxarrez ez dugu jakin deitura identifikatzen, besteak beste lau ataletatik bi ia erabat hondatuta daudelako. Haginaren azpiko basurdeak Zuaznabartarrekin loturiko lurritarretara eraman gaitzake, almenadun dorrea Oiartzuni dagokio, bai eta Lartaundarren familiari ere... baina oraingoz ezin dugu identifikazio zehatzik egin.

Armarriaren ondoan, alde sakratua agertzen da, beste toki batzuetan ere (Biana, Oñati, Amoroto) ikusi dugun bikoiztasuna agertuaz: goian sakratua, behean profanoa. Veronikaren zapia⁸ egiazko agerkundearen sinboloa da, Kristo beste orenen gainetik jarriaz (ikus 5. irudia).



5. irudia.

5.4. Zutabe osoaren irakurketa

Zutabea XVI. mendeko humanismoko arte mintzodunarekin erlazionatzera garamatza orain arte ikusitakoak. Zutabeak, bere xumetasunean, programa ikonografiko oso bat agertzen du, Euskal Herrian beste lekukotasun batzuk ere badituen jokabide batekin bat eginez (ikus 6. irudia). Jokabide honek, Euskal Herrian, muga kronologiko estuak ditu, XVI. mendekoak baitira hona ekarri ditugun lekukotasun guzti-guztiak.

Programa ikonografiko honen euskarria zutabea izatea berritasuna da, ordea, gure testuinguruan. Zutabe librea bera indarraren eta sendotasunaren sinbolo izan daiteke (fortitudo), bai eta onbidearen eta loriaren erakusgarri, Erroman bezala. Herkulesek berak ere badu zerikusia, bestalde, zutabeekin, elezaharrak dioenez bera izan baitzen Europa eta Afrika elkarrengandik bereizi zituen Mediterraneo eta Atlantikoaren arteko lotura ezarriaz; egitandi honen oroimenez zutabe bana (Herkulesen zutabeak) eraiki omen zituzten Ceutan eta Gibraltarren.

8. Ez dakigu Oiartzuneko *Veronikaene* etxearen izenak zerikusirik izan lezakeen zutabe honen historiarekin.

Ikusitakoaren arabera, XVI. mendeko joera humanisten berri zehatza duen norbait bakarrik izan daiteke halako lan bat egiteko eskatu duena. Zutabearen historiari buruz dakigunak Oiartzuneko Zuaznabartarren Dorretxera garamatza. Zutabearen irakurketak berak, Kristoren agerkundearen mende, onbidez haragikeria menderatu, Jainkoaren egia erakutsi (edo nagitasuna baztertu), eta harrokeria zapuztuko dituen gizona iradokitzen ditu; gizon hau, gainera, irakasle, elizgizon (edo nekazari) eta prelatuekin (gotzain, kardenal...) erlazionatua izango da, Villenari kasu eginez gero.

XVI. mendeko Oiartzuneko historia ezagutzen duenak badaki noren identifikatze irudia marraztu dugun; XVI. mendeko Oiartzunen Sebastián de Lartaun baino ez dago zutabeak iradokitzen dituen ezaugarriak dituen.


Sebastián de Lartaun elizgizon eta irakasle izan zen, eta gotzain. Aizarnazabaleko elizako erretore gisa jardun zuen lehendabizi. Doktore titulua erdietsi zuen, Oñatiko Unibertsitateko katedradun (1550-51, 1954-55) eta errektore (1552/53) izan zen, Alcalá de Henareseko San Ildefonso Ikastetxeko Ikastun Nagusi (*Colegial Mayor*), eta Alcaláko San Justo elizako Kalonje. 1570ean Cuzcoko Gotzain egin zuten, Perun. 1583ko urriaren 9an hil zen Liman (Lizarralde 1930: 479 eta Pescador 1995: 72, 83). Gizon honen bizitzako geografian, bestalde, ez da berria Herkules, ikusia baitzuen gutxienez hala Oñatiko Unibertsitatean nola Alcalákoan.

Sebastián de Lartaunen eta Zuaznabartarren Dorretxearen arteko lotura ere ez da falta (Pescador 1995: 88-89):

El presbítero Esteban de Zuaznabar Lasarte, beneficiado de la iglesia parroquial de Oiartzun, había sido nombrado tesorero de la catedral de Cuzco, sin duda a instancias del obispo Sebastián Lartaun, a quien Miguel Zuaznabar había apoyado en el asunto de la polémica capilla⁹ e incluso le había vendido propiedades.

Egiantzekoa da, beraz, ondoko hipotesia: XVI. mendearen bigarren partean (1570 eta 1583 bitartean ziurrenik, gotzain izendapena hartu ondoren) Sebastian Lartaun oiartzundarrak, Alcaláko irakasle eta Oñatiko Unibertsitateko Katedradun eta Errektore izandakoak, Cuzcoko Gotzainak, testuinguru humanistan ikusi eta ikasitakoa erakutsi nahi du bere jaioterrian artelan mintzodun baten bitartez. Sendotasunaren eta indarraren erakusgarri den zutabe libre bat egiteko eskatzen du programa ikonografiko oso batekin: goienez goratu nahi duen familiaren armarría eta Kristoren agerkunde menderaezina erakusten duen Veronikaren zapia, behean bere bizitzako hiru eginkizunetan behar duen jokabidea, bertutearen eredu den Herkulesen lanen argitara, adimenaren hegalpean: irakasle onak haragikeriari ihes egingo dio eta ihes egiten irakatsiko du, elizgizon onak Idazti Deunan den Jainkoaren egia erakutsiko du eta gotzain onak harrokeria bezatzeko eskatuko dio herri-aginteari, hain zuzen bere aurka auzibidean den herri-aginteari.

9. 1571 eta 1585 bitartean Oiartzuneko bizitza asaldatu zuen polemika honek, Sebastian Lartaun elizgizona Haranaren aurka jarriaz.



6. irudia.

6. Herkules Olinpon

Irakurketa biribilegia eskaintzen dugula esan lezake norbaitek. Litekeena da: armariaren kontua garbitu gabe atxiki diogu Lartauni zutabearen ardura, Villenaren azalpenak eta irakaspenak hautatu ditugu garaiko beste batzuenak baztertuta, Lernako hidra ahaztu eta harroinean herensugea ikusi dugu gure hipotesirako egokiena zelako... Hipotesia bere osotasunean biribiltze aldera egin dugu.

Baina jauzi horiek egin gabe ere zutabeak berdin balio du Euskal Herrian ba-direla Berpizkundeko arte mintzodunaren lekukotasunak erakusteko eta XVI. mendeko joera horretan mitologia grekolatindarrak, batik bat Herkulesen irudiak, izan duen erabilera nabarmentzeko.

Erreferentziak

- Apolodoro (1967 ed.): *The library* [J.G. Frazer-en edizioa eta itzulpena], Loeb Classical Library, Cambridge-Massachusetts.
- , (1985 ed.): *Biblioteca* [M. Rodríguez de Sepúlvedaren itzulpena], Biblioteca Clásica Gredos, Madril.
- Barrio Loza, J.A., (1992): "Pedro de Borges y el retablo mayor de San Martín de Amoroto", 56 zkia, 22 bol., 175-180.
- Díaz, G. & Llanos, J., (s.d.): *Kultur etxea. Fray Diego Lizarrakoa* [etxeari buruzko argibide liburuxka], Lizarrako Udala - Nafarroako Gobernua, Lizarra.
- Disney, (1997): *Herkules*, Disney Liburu Tikiak Bilduma, Aizkorri argitaletxea, Bilbo.
- García Gainza, M.C. et alii (1982): *Catálogo monumental de Navarra II. Merindad de Estella. Abaigar-Eulate*, Institución Príncipe de Viana-Arzobispado de Pamplona-Universidad de Navarra, Iruñea.
- González de Zárate, J.M., (1987): *El Palacio Escoriaza-Esquibel como imagen del buen ciudadano y de la mansión del amor*, Gasteizko Udala, Gasteiz.
- , (1988): "Aproximaciones a la lectura iconográfica del programa mitológico en la portada de Santa María de Viana", *Príncipe de Viana*, 11. Eranskina, I Congreso General de Historia de Navarra-6, 179-196.
- , (1992): *Arquitectura e iconografía en la Universidad de Oñate*, Sendoa, Iruñea.
- Lizarralde, J., (1930): *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate*, Tolosa.
- Pescador, J.J., (1995): *Oiartzun zaharreko familia eta ondasunak. Mikrohistoria eta genealogia. XVI-XVIII mendeak*, Oiartzungo Udala, Donostia.
- Ugalde Gorostiza, A.I., (1998): "El coro de la parroquia de Santa María de Salvatierra: una loa al emperador", *Ondare. Cuadernos de artes plásticas y monumentales*, 17, 345-363.
- Villena, E., (1958 ed.): *Los doce trabajos de Hércules* [M. Morrealeren edizioa], Madril.
- Walt Disney, (1998): *Hércules* [bideoa], Los clásicos, Walt Disney Home Video, Madril.